

#1 BAT GARA

Alkarregaz bidean, alkar zaintzen

Caminamos juntos, cuidándonos mutuamente



A. MOTIBAZINOA

Motibatzeari ekin aurretik, esperientzia bizitzera goaz, eta horrek jarrera jakin bat, prestasuna, irekitasuna... eskatzen deusku gutako bakotxari. Une hau zaindu eta jardunbidea pentsatu daigun.

Monitoreo:

Garizuma-aldia, denpora beste era batera bizitzeko, arnasa beste erritmo batera hartzeko, beste behin be Ebanjelioan murgiltzeko aldia.

Neure baitatik urten eta Bestea, Jainko dan eta, aldi berean, gure artean bizi gura dauana, ahula, desbardina, arreta, erronka itxarotea... dana, onartzen ikasteko aukera.

Gure ibilbideari ekitean, gure izaera gogora ekarriko dogu: ahulak gara, esker onekoak, garatu daitekezan gaitasunak doguz...; eta hori aintzat hartuta, geure eta gure bidelagun guztien izaera horren ardura geure gain hartuko dogu.

Hasieratik «bizitzako nomada» garala gogoratu gura dogu gaur be: zentzun, zerumuga, itxaropen... bila diharduen pertsonak gara, eta beste batzukaz batera ari gara horretan, familia lokarrietatik, lotura emozionaletatik, familian eta herritar lez doguzan konpromisoetatik...

Fedearen bideak eranztera, huster, erabateko soiltasuna berreskuratuzera deitzen gaitu, Jainkoak, azkenean, gutako bakotxaren barru-barruan lekua aurkitu daian. Barrukoa da-eta benetako jaia: Jesusen Espirituak eta Aita/Ama Jainkoak sortzen dau gure bihotzetan, eta munduan... onartu gura badabe.

Jesusen ikasleak ezin dira gelditu. Beti dira bidean. Jesusegaz doaz, erabakitasunez. Eta gelditzeko tentazinoa izan ezker, ondo dakigu itxurazko segurtasun hori barriro be “urrunago joateko...” dei egiten deuskun maisuaren konbiteak bakarrik garaitu daikena.

Garizuma-aldi osoa goranzko ibilaldia da: *...aparteko lekura eroan ebazan, mendi gainera...* Pazko-aldiko ibilbideari erabakiz ekiteko deia, menditik eta Golgotatik iragoz, Jesusegaz ikasleen taldean iristeko, eguneroko lautadan, Jainkoaren erreinuaren egitasmoa eta bizitza gizatasunez beteten dauan bere errukiaren aldeko konpromisoan.

Abestia:

GOAZEN GUZTIOK BATERA

JAUNAREKIN EGOTERA. (bir)

1. Seme-alabak bezala, zaindu gagizuz zuk, Jauna.
2. Pozik alkartu gaitezen, Aita bait dogu laguntzen.

Batzar buruak:

Bere Semeari entzun eta jarraitzera

dei egiten deuskun Jainko Aitaren onginahia gurekin:

+ Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. + Amen.

B.KRISTAU ALKARTEEN SAREA SORTZEN, eleizbarrutiko alkartea eratuz

Testu hau irakurriz, Bizkaian bizi garan alkarteok sarea osatzen dogula konturatu behar dogu; Lekuko alkarteetako kide izanda, gure inguruan Barri Onaren agerpenerako bideak zabaltzen doguz.

Aukeratutako mezuan jarriko dogu arreta, hori abiapuntutzat hartuta, alkarregaz otoitzaldi hau egiteko eta bizitzeko

Helburuari begira, irakurketa egiteko erarik onena zein dan ikusi.

Irakurri ondoren, isilunea egin, eta beharrezkotzat jo ezker, gauzaren bat nabarmendu.

GARIZUMA-PAZKO ALDIKO PASTORAL IDAZKIA 2022: txatala

Gure Eleizaren bizitzari dagokionez, joan dan urtearen amaieran zein barriaren hasieran, Frantzisko aita santuak deitutako

Sinodo-prozesuan izan dogun partaidetza nabarmendu da.

Pastoral idazki honek sinodo-senaren esanahian sakondu gura dau,

pandemiak itzi deuskun azken ikasbidea aintzat hartuta:

alkar zaintzearen garrantzia giza esperientzian eta gure alkarite izatean.

Bizkaiko Eleizan garaien zantzuak irakurten ikasi gura dogu,

alkar zainduz eta gizalegezko gizartearen sorburu eta

Jesusen alkaritearen bereizgarri diran alkarrenganako

maitasunezko lokarriak sendotzen lagunduz.

...

Prestaketarako agiriak mundu osoko sinodoaren helburu nagusitzat jotzen dauana hemen,

Bizkaian, egia bihurtu gura dogu:

“ametsak sorrarazo, iragarpen eta ikuspenak eragin, itxaropenak lorarazo, konfiantza suspertu, zauriak lotu, hartu-emonak josi, itxaropenezko egunsentia biztu,

alkarrengandik ikasi, eta buruak argitu,

bihotzak sutu eta eskuak indartu egingo dituan iruditeria positiboa sortu”.

(Alkarrekin, danok batera, edo txandaka... irakurriko dogu bertso-otoitz hau)

Garizumea,
Jesusi ondo begiratzea da,
bere aurpegiari begiratzea,
bere aurpegierea buruz ikastea,
nork bere egin arte,
norbere historiako bihurtu arte.

Garizumea,
Kalbarioraino igotea da,
basamortutik Pazkoraino ibiltea,
atzera begiratu barik, galdu barik,
ahalegina itxaropenean gaindituz.

Garizumea,
zeure etxea zabaltzea da,
garbitzen dauan haizeari
sartzen iztea,
eta argitzen dauan eguzkiari
leihoak zabaltzea
distira betean sartu daiten.

Garizumea,
ezpata zorrotza dan
berba ahaltzua entzutea da,
eta Espiritu Sortzaileak bihotza
urratzen eta barri egiten iztea.

Garizumea,
Lagun urkoaren bila urtetea da,
eta haren zerbitzura jartea,
ezagutzen dozun
eta beste Kristo batena
izan daitekeen
aurpegieraz jabetzeko.

C. JESUSENGAN BEGIAK JARRIRIK...

Hitza entzungo dogu eta oinarritzat hartuko, gero bideoa ikustean.

Keinu edo sinboloren bat -kurutzea, ikonoa,...- aukeratuko dogu, begiak itzuli eta arreta jartzen lagundu deigun.

Batzarretik ataraz, Hitza eroanez, kide batek iragarriko dau.

Heb 12, 1-2

*Geuk ere, hainbat eta hainbat testiguz inguraturik gagozanok,
astindu dagigun oztopo jakun guztia eta inguratzen gaituan pekatua,
eta ekin deiogun eroapen sendoz aurrean dogun Lasterketari.*

*Jarri dagiguzan begiak
geure fedearen iturburu eta betetzailerak dogun Jesusegan...*

Monitoreo:

Bideoa ikusten dogun bitartean, konturatu gaitzean zelan begiratzeko deusan Jainkoak gure munduari, gutako bakoitzari; eta begiratu deiogun, bere begiradak aldatu gaizan:

- Jesusen bitartez zer egiten dauan ikusi, bere zeinuetan gure biderako argibideak aurkitzeko.
- Lukasen Ebanjelioko pasarte batean, «beragaz hartu» hitza agertzen da. Irakurri daitekenez, «hartu zituan Jesusek beragaz Pedro, Santiago eta Joan». Berak hartu ebazan ikasleak, eta Berak hartu gaitu bere ondoan. Maite izan gaitu, aukeratu eta deitu. Jatorrian, opariaren, aukeraketaren misterioa dago.
- Euren bizitza opari egin dabenak izan aurretik, doako oparia jaso dabenak gara. Jesusek gauza bera egin dau gugaz: geure izenez deitu eta beragaz hartu ginduzan. Nora eroateko? Bere mendira, non dagoeneko Beragaz ikusten gaituan, bere maitasuna itxuraldatuta. Horrax geroaz graziak. Horregaitik, hartu daigun bizitza geure eskuetan. Eta egun bakoitza helmugara geroazan bidearen zati lez bizitzeko oparia onartu daigun.

- Begiak Aitarengan, Jesusengan jarrita, bizitzarako eredu lez, Bere antzeko izateko, opari izateko mundu honentzat.

(Bideoa ikusi)

Monitoreo:

Jaunarengan eta bere egitasmoan dogun konfiantza ze txikia dan konturatuko gara. Bihotz-barritzera, sinistedun izatera deituak izan gara eta hori ez da gure egintza, baina, aldi berean, ez da gauzatuko gure laguntza barik. Sinistedun handi biren berbak gogora ekarriko doguz: ... SINISTEN IKASI GURAKO NEUKE..., inoan D. Bonhoefferrek eta ... HAINBESTE ZALANTZA IZAN NEBAN ZE, EZ NEBAN DANA EGUN BAKARREAN SINISTU..., Charles de Foucauldek.

Jaunaren aurrean jarriko gara, Beragaz adiskidetasuna egiteko, uste osoa izaten ikasteko, eta ondorengo otoitza esango dogu.

Era askotara egin daiteke: hots egin eta esaldia errepikatu...

OTOITZA:

Gaur ere, Jaunak berbak esaten ditu
zuretzat eta niretzat,
halako batean,
Moisesentzan esan ebazan lez:

Ni zure Jaungoikoa naz, biziaren Iturria.
Ni ez naz Jaun haundia,
zure Laguna baino.
Nik ez dot araurik idazten harrietan,
zeure bihotz barruan baino.
Gidatzeko jarraibideak dira,
igoteko mailak, hazteko arnasea.
Ni Jaungoikoa naz,
baina zeugan eta zeuretzat.
Ni zeu izan zaitez naz.


Ez nagizu bildurrez zerbitzatu,
ez zaitez belaunikatu esklabo lez
lurreko jainko bakar baten aurrean ere,
ez ezeren ez inoren aurrean.
Zutitu zaitez Ni maitasunean zerbitzatzeko;
ez inor gurtu maitasunean ez bada;
maitasunean bizi zaitez.

Ez egizu ezer apurtu;
ez inor erabili, ez inor engainatu,
bestea, edozein izanda ere,
nire semea, nire alabea dalako,
neure antz eta irudira egindakoa.
Batez ere txiroen, nagusien,
umezurtzen, atzerritarren
eta babes bakoen alde egin,
Ni Maitasuna eta Zuzentasuna nazalako.

D. Alkarregaz bidean... ALKAR zainduz

Irudi bi ikusgai jarriko doguz: gure alkartea agertuko dauan argazki/irudia eta geu be partaide garan eta bere oihuak entzun gura doguzan giza alkartearena... -Caritasen edo gizatalde baten irudia.

Lagun jakin batzuen presentzia, irudia, partaide izatearen seinale lez, gure harreman, egitismo eta mezuen jasotzaile.



D.1. KRISTAU ALKARTEKO PARTAIDE GARANOK

*Pastoral Idazkiaren txatal hau irakurriko dogu
Talde zehatzaren arabera, erarik egokiena aukeratu.*

GARIZUMA-PAZKO ALDIKO PASTORAL IDAZKIA 2022: txatala

Gizon-emakumeok ibiltariak gara.

Bidea, kristauontzat, metafora da, bai geure bizitzarena eta bai geure fedearena be.

Abrahamek bizimodu ibilkaria izan eban (Has 12, 4-7)
eta Moises basamortu gogorra zeharkatu eban ibilaldi luzean buru izan zan (Dt 1, 31).

Jainkoak ez gagozan lekutik deitzen gaitu beti.

Ezinbestekoa da geure buruari zein bidetan gabilzan behin eta barriro galdetzea:
zoriontasun eta salbazinoaren bidetik aurrera egiten dihardugun ala galduta,
hara-hona noraezean goazan. Kristauok ez dogu biderik asmatu beharrik.

Jesusen atzean jarri eta Beragaz batera aurrera egin gura dogu,
bera da-eta bidea, egia eta bizia (Jn 14, 6).

Kristok binaka bialtzen gaitu misinora.

Izan be, ez argienak, ez sortzaileenak, ez prestatuenak, ez leialenak,
ez irekienak be ez dau lorpen handirik jadetsiko.

Eleiza jabetzen da bere erromes-izaeraz -beraz, sinodo-izaeraz- eta horregatik,
bere misino-egitekoa gauzatu ahal izateko,
nahitaez zaindu behar dau beti batasuna eta ardurakidetasuna
eta bateatu guztien partaidetza sustatzeko bide eraginkorrak aurkeztu behar ditu,
gizon eta emakume guztien eta bakotxaren karisma eta gaitasunak autortuz.

Gainera, gizadiaren zerbitzura bide eginez goaz,
munduko beste hainbat kristau sinismenetako
eta gainerako erlejinetako pertsonakaz batera bide eginez hain zuzen,
Jainkoarenganako benetako fedea, banatzaile ez ezik,
anai-arreben arteko bategite eta lankidetzara eragiteko
gauza dala erakusteko gogo biziz.

...

(Isilunea eta hausnarketa)

GURE KRISTAU ALKARTEA GOGOAN HARTURIK:

- Zer eta zenbat egiten dogu alkarbizitza sendotzeko?
- Zer gehiago edo hobeto egin daiteke: nire bizitzan, gure kristau alkartean?

Abestia:

GOAZEN ALKARTURIK BIZTUTA FEDEA,
ARGITAN ZABALIK MAITASUN BIDEA.

- | | |
|--|---|
| 2. Gurekin dogu, maisu ta lagun,
gurekin dogu, gurekin Jauna,
egin dagigun zuzentasunez
ta maitasunez bere esana. | 3. Zuzentasunez egin dagigun
maitasun bide zabal argia,
gure anaiei lagunduz beti,
emonez eskua ta ogia. |
|--|---|

D.2. ALKARTEAN, BIDELAGUN GARANOK...

Gizartean, bizitza duinaren alde egiten, ...

Bideo laburra ikusi, alkarre lez eusten, garatzen doguzan egutasmoez jabetzeko eta nik neuk zenbat denpora emoten dodan, batera zer jarten dodan... ikusteko.

EUSKERA: <https://www.caritasbi.org/eus/zer-da-caritas/gaur-egun/>

(Isilunea eta hausnarketa)

JAINKOAREN ASMO NAGUSIA, GIZA SEME-ALABEN BIZIA DA:

- Zer egiten dogu gizarte, auzo, herriaren alde, alkarbizitza sendotzeko?
Beste hainbat pertsona edo erakundegaz batera, danon onerako?
- Zer gehiago edo hobeto egin daiteke?

Ahal izan ezkerro, idazkia aukeratzeko dinamika egin: Lagun bakotxari hiru idazkietako bat emon eta gogoeta egin ondoren, konpromiso lez erango dodan HITZA BATERA JARRI.

Berba ARGITZAILEAK:

“Maitasunik eza ergelkeria-maila bat da, maitasuna kontzientziaren bikaintasuna da-eta. Ez ulertzeak ez dakar ez maitatzea; are gehiago, ez dogu ulertzen ez dogulako maitatzen; maitasuna inguratzen gaituan guztiaren azken zentzua da-eta, egia, kreaizino ororen sustraian bertan dagoan poztasuna”.

R.TAGORE

“Alkartasuna batak bestea pertsona lez autortzea da (...) Bestea, edozein bitarteko lez ez ezik (...), gure antzeko lez, laguntza lez ikustea”.

JOAN PABLO II, SRS, 39

“Alkartasuna gizaki lez izateko eta alkar ulertzeko era da, hau da, alkarrentzat izatea, alkarregaz bizitzea, eta alkarrengaitik egitea”.

J. GARCIA ROCA

HERRI OTOITZA

Monitoreo:

Jaunak batera hartzen ditu ikasleak, alkarte lez hartzen ditu. Jeusenak gara, eta alkarte lez gara bereak. Eskatu daigun, behin eta barriro, alkartasuna egiteko eta alkartasunari eusteko indarra, senidetasunaren eragile izateko Eleizan eta munduan.

Otoitz egitea, errealidadea aldatzea da. Misino eraginkorra da, etenbako bitartekotza. Ez da mundutik aldentzea, mundua aldatzea baino. Otoitz egitea, gaur egungo bizitzaren taupadak Jainkoari eroatea da, historiari zabal-zabal begiratu deion.

Batzar burua:

Jesusek esandakoari jarraitu nahi deutsagu, bakoxta bere barruan sarturik Jaungoikoari berba egiteko. Aita Jainkoak gutariko bakoxta ezagutzen dau, eta gainera gure alde dago, horregaitik esaten deutsagu:

JESUS, BARRITU GURE BIHOTZAK

- Aldatu, Jauna, gure eskuak zabal eta lagungarri izan daitezcan.
- Aldatu, Jauna, gure entzumena zure berbak entzuteko.
- Aldatu, Jauna, gure ikusmena, beharrian behar dagozanak ikusteko.

Danok: JESUS, BARRITU GURE BIHOTZAK

- Onartu, Jauna, gure bihotz gogortuak zure maitasunak samurtu daizan.
- Onartu, Jauna, daukagun gauzen guraria eta alkartasun bihurtu eizu.
- Onartu, Jauna, gure bildurrak eta konfiantzaz bete eizuz.
- Onartu, Jauna, gure neke eta gogorkeria, emoiguzu arren, indar barria.

Danok: JESUS, BARRITU GURE BIHOTZAK

- Zurekin egotea nahi dogu, baina galdua gabilz.
- Zure Aita ezagutzea nahi dogu, eroan gaizuz bere ondora.
- Ondokoekin bizi izaten ikasi behar dogu, zure mahaian jarten garanoi, erakutsi eiguzu zelan sendotu alkarbizitza.

Danok: JESUS, BARRITU GURE BIHOTZAK

GURE AITA...

Egin daigun otoitz

Isilunea

+ Zure hitzak entzun ditugu Jauna,
biderako indarra hartu dogu;
izan zaitez gure bidelagun,
hasi dogun lasterraldia ondo amaitzeko,
zeure antzekoak izan gaitzean.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. + AMEN.

Abestia: AMA MAITE MARIA, EGIGUZU LAGUN,
ZURE BITARTEZ JESUS, IKUSI DAGIGUN.

Batzar burua:

- + Jesukristok zuzendu dagizala gure bihotzak
Jainko errukidun maitasunera. **R/.** AMEN.
- + Bizi barri baten oinarritu gaitezán,
danean Jainko esanera bizi gaitezén. **R/.**AMEN.
- + Bedeinkatu eta gorde gagizala Jainko ahalguztidunak:
AITAK ETA SEMEAK ETA ESPIRITU SANTUAK. **R/.**AMEN.

Gure gaitzak onera zuzendu ditu Jaunak.

Goazen Jaunaren bakean!

R/. ESKERRAK JAINKOARI.